

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Alde Batetik, gure bezero nagusia adineko jendea izango da, jende heldu asko ez delako gai beraien kabuz egunerokoak normalitatez egiteko. Horregatik, gure enpresaren bidez beraien egunerokoa erreztuko dugu, astero beraien erosketa eginez. Hori gutxi balitz beraien bizitza gehiago errazteko gure enpresak erosketa etxera eramateko ahalmena du.

Bestetik, gure enpresak beste adineko bezeroei ere erosketa egiteko aukera emango die, gaur egun familia askok ez dutelako astero erosketa egiteko denborarik, lan asko egiten dutelako, umeak zaindu behar dituztelako...Alaber, ezintasunak dituzten jendearentzako gure enpresa baliagarria izan daiteke, adibidez, elbarrituen aulkian daudelako, makuluekin daudelako, gaixorik dagoelako...

Hurrengo ataletan azalduko dugun bezela, aipatutako bezeroen segmentazioa kontutan hartu dugu, bezero desberdinen ezaugarriak eta beharrak ezagutzeko eta hori kontutan hartuta definitu ditugu gure zerbitzu desberdinak, haien beharrak asetzeko.

Segmentazio geografikoa dela eta, gure enpresa Donostiako hirian kokatua egongo da, baina hasiera ez dugu Donostiako auzo guztietan lan egingo. Zehazki, Antiguon, Amaran, Zentroan, Grosen eta azkenik Aieten lan egingo dugu. Gure garraio nagusia txirrinda izango da beraz ezingo dugu edozein tokitara joan eta litekeena da telefonotik eskaria egin ondoren erosketak egunean bertan edo hurrengo egunean iristea. Gure enpresaren arrakastaren arabera planteatu genezake beste auzoetara zabaltzea: Egia, Intxaurrondo, Errotaburu, Ribieras, Loiola, Martutene...

Azkenik, gure enpresa bezeroen hirugarren edo laugarren eskarian gai izango denez haien ohiturak ezagutzeko, eskariaren arabera bezeroak taldetan sailkatu ditzazkegu. Segmentazio berri horri esker gure zerbitzuaren kalitatea hareagotuko dugu, efizentzia hobetuz. Segmentazio hori egiteko kontutan hartuko dugu zenbat kide bizi diren etxean, kopuruak ondo identifikatzeko, zer motatako produktuak kontsumitzen dituzten bereziki (esnekiak, barazkiak, lekaleak, ekologikoak, freskoak...)